



Azalpen txostena, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuaren aurrekontuak indarrean dagoen aurrekontuarekin alderatuta agertzen dituen desberdintasun nagusiei eta haiek prestatzean erabilitako irizpideei buruz.

3/2019 Foru Dekretuaren 6. artikulua, ekainaren 29koa, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak, eta horiei dagozkien jardun esparruak eta eginkizunak finkatzekakoa, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko departamentuari jardun esparru eta eginkizun haiek esleitzen dizkio: a) ekonomiaren sustapena eta garapena; b) berrikuntza eta nazioartekotzea; c) turismoa; d) nekazaritza eta landa garapena; e) abeltzaintza, mendiak eta natura-gunea; f) baso baliabideak antolatzea eta hobetzea; g) natura artatzea; h) ehiza eta arrantza aberastasunaren aprobetxamendua babestu, artatu eta sustatzea; i) lurralde oreka; eta j) nekazaritza, landa garapena, natura ingurunea eta lurralde orekaren koordinazioa.

Bestalde, 2019ko uztailaren 1eko 19/2019 Foru Dekretuaren 2. artikulua departamentuak antolatzen du sei zuzendaritza nagusietan: a) Ekonomia Sustapeneko Zuzendaritza Nagusia; b) Berrikuntzako eta Internazionalizazioko Zuzendaritza Nagusia; c) Turismo Zuzendaritza Nagusia; d) Nekazaritzako eta Lurralde Orekako Zuzendaritza Nagusia; e) Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusia; eta f) Landa Udalerrien Garapenerako Zuzendaritza Nagusia.

EKONOMIA SUSTAPENA

Aurrekontuak prestatzean erabilitako irizpideak hauek izan dira:

- 2020ko aurrekonturako orientazioak sartzea.
- Zuzendaritzaren egitura berriaren jarraibide eta lehentasun nagusiak finkatzea eta indartzea, ezarri den sistemen ebaluazio prozesuarekin bat etorritik.
- Kudeaketa Plan Estrategikoan konprometitutako lan ildoak indartzea.

Eta garatu beharreko programetatik:

- Programen eta jardueren garapenetan departamentuen arteko lankidetzaren antolaketa hobetzea.

Informe explicativo de las diferencias más significativas que presenta el presupuesto del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural respecto al vigente y los criterios adoptados en su elaboración.

El artículo 6 del Decreto Foral 3/2019, de 29 de junio, de determinación de los departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y de sus áreas de actuación y funciones, atribuye al departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural las siguientes áreas de actuación y funciones: a) promoción y desarrollo económico; b) innovación e internacionalización; c) turismo; d) agricultura y desarrollo rural; e) ganadería, montes y medio natural; f) Ordenación y mejora de los recursos forestales; g) conservación de la naturaleza; h) protección, conservación y fomento del aprovechamiento de la riqueza cinegética y piscícola; i) equilibrio territorial; y j) coordinación de las materias de agricultura, desarrollo rural, medio natural y equilibrio territorial.

Por su parte, el artículo del Decreto Foral 19/2019, de 1 de julio, estructura el departamento en seis direcciones generales: a) la Dirección General de Promoción Económica; b) la Dirección General de Innovación e Internacionalización; c) la Dirección General de Turismo; d) la Dirección General de Agricultura y Equilibrio Territorial; e) la Dirección General de Montes y Medio Natural; y f) la Dirección General para el Desarrollo de Municipios Rurales.

PROMOCIÓN ECONOMICA

Los criterios utilizados en la elaboración de los presupuestos, han sido:

- Integrar las orientaciones para el ejercicio presupuestario 2020.
- Consolidar y reforzar la orientación de las grandes directrices y prioridades de la nueva conformación de la Dirección en coherencia con el proceso de evaluación sistémica que se ha implantado.
- Profundizar en las líneas de trabajo comprometidas en el Plan Estratégico de Gestión.

Y, desde los programas a desarrollar:

- Mejorar la articulación de la colaboración interdepartamental en el desarrollo de programas y actuaciones.



- Enpresa berriak sortzeko laguntza programen eraginkortasuna hobetzea, laguntza ekosistema indartuz, gizartean ikusgarri egitera eta baloratzea bideratuz.
- Enpresen lehiakortasuna sustatzeko programak ikuspegi integral eta dinamikoz hornitzea, enpresen gaurko eta etorkizuneko beharrei erantzuteko (ETEEi lehenetasuna emanez).
- Etorkizuna Eraikiz dinamikarekin bat etorriz, pertsonen enpresetan duten parte hartzea sustatzearen esparruan identifikatutako praktika onak zabaltzea, horretarako sustapen tresnak abian jarritz.
- Pertsonen garapena osatzen duten eta gizartean/lurraldean garatu eta errotzen diren enpresa ereduak azpimarratzea, iraunkortasun hirukoitzaren irizpideak biltzen dituztenak (talentua gordetzea, garatzea eta erakartzea).
- Kalitatezko enpleguaren aldeko apustua egitea.
- Garapen endogenoaren sustapenerako politikak eta tresnak berriz diseinatzen sakontzea, lurraldeko eragileekin eta eragile sozioekonomikoekin elkarlanean.
- Mejorar la operatividad de los programas de acompañamiento a la creación de nuevas empresas fortaleciendo el ecosistema de apoyo y una mayor visibilización y valorización social.
- Dotar a los programas de apoyo a la competitividad de las empresas con una visión integral y dinámica que respondan con las necesidades actuales y futuras de las empresas (priorizando a las PYMES).
- En coherencia con la dinámica de Etorkizuna Eraikiz, extensión de las buenas prácticas identificadas en el ámbito de la promoción de la participación de las personas en las empresas con la puesta en marcha de instrumentos de apoyo para su implantación.
- Incidir en modelos empresariales que respondan desde su triple sostenibilidad al desarrollo de las personas –retención, desarrollo y atracción de talento que las conforman y a la sociedad/territorio en las que se desarrollan y enraízan.
- Apuesta por el empleo de calidad.
- Profundizar en el rediseño de las políticas e instrumentos de promoción del desarrollo endógeno de acuerdo con los agentes territoriales y socio-económicos.

2020 ekitaldian area hau mantentzen da, ikuspuntu kuantitatibotik, departamentuaren oinarritzko ardatzetako bat bezala.

Esta área se mantiene en el ejercicio 2020, desde el punto de vista cuantitativo, como uno de los ejes básicos del departamento.

BERRIKUNTZA eta INTERNAZIONALIZAZIOA

Gipuzkoa Europa mailan I+G arloko eskualde aitzindari gisa posizionatzeko gure konpromisoarekin jarraitzen dugu.

Donostia International Physics Center ikerketa zentroaren (materialen fisikaren alorrean nazioarteko erreferentea) laguntzarekin batera, Biozientzia/Osasunaren alor estrategikoan proiektu enpresarial berriak bultzatzeko ahaleginekin jarraitzen da, Espezializazio Inteligenterako strategiaren barruan Euskadik egin duen apustuarekin bat da.

“Fellows” programarekin jarraitzen da, Gipuzkoako I+G zentroetara maila goreneko talentua erakarri

INNOVACIÓN e INTERNACIONALIZACIÓN

Mantenemos nuestro compromiso de posicionar a Gipuzkoa como una región puntera en materia de I+D a nivel europeo.

Junto con el apoyo al centro de Investigación Donostia International Physics Center, referente internacional en investigación básica en el campo de la física de materiales, se continúa con el impulso de nuevos proyectos empresariales en el ámbito estratégico de las biociencias / salud, una de las apuestas que Euskadi ha realizado dentro de su Estrategia de Especialización Inteligente.

Se mantiene el programa “Fellows” que pretende atraer y retener talento investigador del máximo



eta mantendu nahi duena, programa aitzindaria Gipuzkoako Foru Aldundia bezalako erakunde batean.

Enpresen internazionalizazioaren aldeko apustuari eusten diogu, lehiakortasuna indartzeko beharrezkoa baita. ETEei zuzendutako laguntza programarekin batera, Gipuzkoako Ganberarekin lankidetzaren indartuko dugu.

Erakunde arteko lankidetzaren eta koordinazioaren aldeko apustua egingo dugu, Euskal Nazioartekotze Partzuergoaren markoan.

Gure industria sektorea lehiakorragoa egiteko apustuari eusten diogu, horretarako enpresetako I+G+bko laguntzak espezializatu ditugu produktu berriak garatzeko eta teknologia elektronikoak eta informazioko eta komunikaziokoak sartuta balio erantsia emateko eta Gipuzkoako enpresak eskualde aukeratuen taldean koka daitezzen, euren enpresak Industria 4.0 ereduaren oinarritutako eredu lehiakorren estrategiara bideratzen dutenak.

Elektromugikortasunarekin, energia biltegitratzearekin, zibersegurtasunarekin eta Gastronomia 4.0 teknologiarekin erlazionaturiko apustu estrategikoen sustapenari –joan den ekitaldian hasitakoari– eutsi egingo zaio 2020. urtean, bai hasitako sektoreko sustapen politikak mantenduz, bai aurreikusitako azpiegituren zabalkuntzaren bidez.

TURISMOA

Gipuzkoako sektore turistikoa indartu behar da, benetako sektore ekonomikoa baita: Gipuzkoarako aberastasuna eta enplegua sortzen ditu.

2020an turismo eredu jasangarri eta antolatu bat sortzen jarraitu nahi dugu, horrek lagunduko baitu enplegua eta aberastasuna lurralde osoan modu orekatuan eta banatuan sortzen.

NEKAZARITZA ETA LURRALDE OREKA

Nekazaritza eta abeltzaintza sektorearen lehiakortasuna bultzatzeko ahaleginak bi programetan biltzen dira: Mendialdeetarako Konpentsazio Ordainak eta Nekazaritza eta Abeltzaintza Ustiategiak Modernizatzeko Plana. Horretaz gain, diru laguntzen lerro berri bat aurreikusten da, Gipuzkoako Lurralde Historikoko

nivel a los centros de I+D de Gipuzkoa, un programa pionero en una institución como la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Reafirmamos nuestra apuesta por la internacionalización de las empresas como aspecto fundamental de su reforzamiento competitivo, junto con el programa de ayudas, enfocado preferentemente a las pyme, reforzaremos la colaboración con la Cámara de Gipuzkoa.

Seguiremos apostando por la cooperación y coordinación interinstitucional en el marco del Consorcio Vasco de Internacionalización.

Mantenemos la apuesta por hacer más competitivo a nuestro sector industrial, para ello especializamos los apoyos a la I+D+i en la empresa para el desarrollo de nuevos productos que incorporando tecnologías electrónicas y de la información y comunicación, aporten nuevo valor añadido y posicionen competitivamente a las empresas guipuzcoanas dentro del selecto grupo de regiones que orientan su estrategia por un modelo competitivo basado en el modelo de Industria 4.0.

El impulso a las apuestas estratégicas de la electro movilidad y almacenamiento de energía, la ciberseguridad así como la de la Gastronomía 4.0, cuyo inicio datan del pasado ejercicio, se verán reafirmadas en 2020, tanto con el mantenimiento de las políticas de promoción sectorial iniciadas, como por el despliegue de las infraestructuras previstas.

TURISMO

Fortalecer el sector turístico de Gipuzkoa como un sector económico real, generador de empleo y riqueza para Gipuzkoa.

En 2020 se pretende continuar generando un turismo sostenible y ordenado que contribuya a generar empleo y riqueza de forma equilibrada y repartida en el conjunto del Territorio

AGRICULTURA Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

Además de los créditos contemplados en dos programas dirigidos a favorecer la competitividad del sector agroganadero: Línea de Indemnizaciones compensatorias de montaña y Plan de modernización de explotaciones agroganaderas, se introduce una nueva línea de ayudas para financiar las instalaciones y la adquisición de maquinaria



abeltzaintzako ustiattegietan sortutako simaurrak eta mindak maneiatzeko instalakuntzak eta makineria finantzatzeko.

Sektorean asoziazionismoa eta lan kolektiboa bultzatzen duten sektoreko elkarteekin hitzarmenak egonkortzen dira. Era berean, hitzarmenen berrikustea eta gaurkotze prozesuarekin jarraituko da, hortaz, erakundearen eta azpisektore desberdinen artean partekatuta, definituko diren behar eta erronka berriei erantzuna emango zaizkie.

Nekazaritza lurren kudeaketarako ahalegina mantentzen da Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritzaren lankidetzan estuan.

Helburu nagusienetako bat burokrasia gutxitzea da. Horretarako, informazio sistemak optimizatzeko lanekin jarraitzea aurreikusten da. Era berdinean, Landa Inguruneko arloko zuzendaritzen funtzionamendu eta barne antolakuntzaren oinarritzeko hobekuntza eremuak identifikatuta, hauek ezartzearekin jarraituko da.

MENDIAK ETA NATUR INGURUNEA

Baso jarduera suspertzeko Planean ahaleginekin jarraitzen da.

Jardueren artean azpimarratzen da gaixotasuna duten landaketen mozketaren sustatuko delakoa. Era berean, birlandaketa, lursailak sarreren hobekuntza eta baso makineria erostea sustatzen da ere.

Mendiko larreak kudeatzeko ahalegina indartzen jarraitzen da Nekazaritza eta Landa Garapeneko Zuzendaritzaren laguntzaz, lan taldeekin sortutako dinamikak sustatuz. Lan ildo horrek dagokion udalekin lankidetzan estuan lan egitea eskatzen du.

Habitata eta naturagune babestuak mantentzeko eta zaintzeko ahalegina mantentzen da hainbat Europako programetan parte hartuz.

para el tratamiento de estiércoles y purines producidos por las explotaciones ganaderas del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Se consolidan los Convenios con las asociaciones sectoriales que promueven el asociacionismo y el trabajo colectivo en el sector, a la vez que se continúa con el proceso de revisión y actualización de los mismos de manera que respondan a las nuevas necesidades y nuevos retos que se definan de forma compartida entre la institución y los distintos subsectores.

Se mantiene el esfuerzo en la gestión de suelo agrario estrechando la colaboración con la Dirección de Montes y Medio Natural.

La reducción de la burocracia sigue siendo uno de los objetivos primordiales y para ello se prevé continuar con los trabajos de optimización de los sistemas de información y la implantación de los ámbitos de mejora en el funcionamiento y organización interna de las Direcciones del área de Medio Rural.

MONTES Y MEDIO NATURAL

Se continúan incrementando los esfuerzos en el Plan de reactivación de la actividad forestal.

Entre las distintas acciones se hace hincapié en promover la corta de plantaciones con enfermedades. También se promueve la replantación, la mejora de accesos a los terrenos así como la adquisición de maquinaria forestal.

Se continúa reforzando el esfuerzo en la gestión de pastos de montaña en colaboración con la Dirección de Agricultura y Desarrollo Rural, con las dinámicas surgidas con los grupos de trabajo creados. Esta línea de trabajo supone estrechar la colaboración con los ayuntamientos correspondientes.

Se mantiene el esfuerzo de conservación y mantenimiento de hábitats y espacios naturales protegidos participando en diversos programas europeos.




02 Departamentua EKONOMIA SUSTAPENeko, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNEKO DEPARTAMENTUA/

Departamento 02 DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA, TURISMO Y MEDIO RURAL

(Mila eurokotan/Miles de euros)

Programak	LANGILEAREN GASTUAK 1	ONDASUN ETA SERB.OHIKO 2	FINANTZA GASTUAK 3	TRANSFER. ARRUNTAK 4	KONTINGENT. EZUSTEKOAK 5	INBERTSIO ERREALAK 6	KAPITAL TRANSFER. 7	FINANTZA AKTIBOAK 8	FINANTZA PASIBOAK 9	AURREKONTUA GUZTIRA
Programas	GASTOS DE PERSONAL	GTOS.CTES. BIEN.Y SERV	GASTOS FINANCIEROS	TRANSFER. CORRIENTES	CONTINGENC. IMPREVISTOS	INVERSIONES REALES	TRANSFER. DE CAPITAL	ACTIVOS FINANCIEROS	PASIVOS FINANCIEROS	TOTAL PRESUPUESTO
01. Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingur Servicios Generales de Promoción Económica, Turi	1.409,91	270,42				1.413,41				3.093,75
10. LK- Lurraldearekiko Konpromezua/ LK- Compromiso con el Territorio	140,56	280,00		15.053,08			1.466,35	708,00		17.647,99
11. Eskulangintza Sektorearen Sustapena/ Promoción del Sector Artesanal	681,77	22,00		263,85			116,65			1.084,27
20. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sustatzea/ Promoción de la Ciencia, la Tecnología y la Innovac	270,52			530,00			4.795,00			5.595,52
21. Internazionalizazio Jarduketa Sustatzea/ Promoción de la Internacionalización				456,00			1.006,00			1.462,00
22. Gipuzkoa 4.0:Fabrikazio aurreratua/ Gipuzkoa 4.0: Fabricación avanzada	221,57	407,58		1.746,73			1.546,23			3.922,11
30. Turismo eta lurralde irudia/ Turismo e imagen territorial	360,28	1.298,55		1.540,00		9,50				3.208,33
40. Landa Garapena eta Nekazal Egiturak/ Desarrollo Rural y Estructuras Agrarias	2.644,95	1.314,33		6.914,83		187,50	6.547,48			17.609,09
41. Laborategi, Kalitate eta Nekazaritza Berrikuntzako Servicio de Laboratorio, Calidad e Innovación Agra	910,12	650,96				43,15				1.604,23
42. Abereen Ekoizpena eta Osasuna Sustatzea/ Fomento producción y sanidad animal	867,38	1.347,40		1.443,61						3.658,39
43. Landaretzaren Sustapena eta Esperimentazioa/ Promoción y Experimentación Vegetal	464,25	305,25		478,34		28,52	295,00			1.571,35
50. Mendiak eta Habitaten Kudeaketa/ Montes y Gestión de Hábitats	4.310,87	1.109,41		934,02		1.929,20	3.596,77			11.880,27
51. Basa Animaliak eta Landareak/ Fauna y Flora Silvestre	1.161,67	645,20		319,90		266,73				2.393,50
Departamentua Guztira Total Departamento	13.443,86	7.651,09		29.680,37		3.878,01	19.369,47	708,00		74.730,79



- 1. LANGILEAREN GASTUAK/GASTOS DE PERSONAL
- 2. ONDASUN ETA SERB.OHIKO/GTOS.CTES. BIEN.Y SERV
- 4. TRANSFER. ARRUNTAK/TRANSFER. CORRIENTES
- 6. INBERTSIO ERREALAK/INVERSIONES REALES
- 7. KAPITAL TRANSFER./TRANSFER. DE CAPITAL
- 8. FINANTZA AKTIBOAK/ACTIVOS FINANCIEROS